

El sindicato AZET celebra su primer aniversario siendo un referente en la defensa de la vivienda

ECUADOR ETXEA :: 14/06/2021

“No son sólo desahucios, esto es una guerra contra los pobres”

“No son sólo desahucios, esto es una guerra contra los pobres y por ello es más urgente y prioritario que nunca juntarnos con nuestras vecinas y organizarnos con nuestra clase”

Hace un año empezamos a organizarnos para responder a las necesidades materiales de nuestras vecinas.

Hace un año nos comprometimos a politizar y radicalizar la problemática de la vivienda.

Hace un año tomamos la decisión de dar soluciones colectivas a esos problemas supuestamente individuales.

Hace un año comenzamos a reunirnos con nuestras vecinas y a organizarnos con nuestra clase.

Hace un año empezamos a tejer la solidaridad de clase desde el barrio a Euskal Herria.

Hace un año nos comprometimos a no dejar atrás a una sola vecina.

Hace ya un año, pusimos en marcha el Sindicato de Vivienda AZET.

La vivienda es hoy uno de los principales ámbitos de acumulación capitalista. Como llevamos tiempo diciendo, el de la vivienda no es un problema sectorial ni coyuntural. El de la vivienda es un problema estructural que reproduce todas las dinámicas de dominación y opresión de la sociedad capitalista.

La crisis económica que vivimos a día de hoy no ha hecho más que empezar. Así es, vienen tiempos difíciles para las desposeídas. Desahucios, despidos, hambre y miseria es lo que se atisba en el horizonte. Mientras tanto, la clase propietaria se está organizando para aprovechar la crisis y seguir sacando partido de nuestras vidas.

Así es, vienen tiempos difíciles para las desposeídas. Pero también serán tiempos en los que las contradicciones del capitalismo se acrecentarán y profundizarán, intensificando las condiciones objetivas para el estallido del antagonismo de clases.

Por eso, está en las manos de todas nosotras convertir esas contradicciones en antagonismos, haciendo que cada desahucio y cada agresión se conviertan en barricada.

Por eso hoy, queremos reafirmar nuestro compromiso de seguir defendiendo a nuestras vecinas y formando una barricada con nuestra clase: construyendo barrio y comunidad política, aprendiendo juntas, cuidándonos mutuamente y construyendo otras formas de

relacionarnos que no dejen a nadie atrás. Y todo ello requiere un profundo trabajo y compromiso material y ético. Porque crear una barricada no sirve de mucho, si no aprendemos a vivir tras de ella.

Duela urtebete gure auzoKIDeen behar materialei erantzuten hasteko antolatzeke hasi ginen.

Duela urtebete etxebizitzaren arazoa politizatu eta erradikalizatzeko konpromezua hartu genuen.

Duela urtebete arazo indibidualei irtenbide kolektiboa emateko hautua egin genuen.

Duela urtebete gure auzokideekin elkartu eta gure klasearekin antolatzen hasi ginen.

Duela urtebete auzotik Euskal Herrira klase elkartasuna jozten eta ehuntzen jarri ginen.

Duela urtebete auzokide bakarra atzean ez uzteko konpromezua hartu genuen.

Duela urte bete jada, jarri genuen martxan AZET Etxebizitza Sindikatua.

Etxebizitza sindikatuen ibilbidea laburra eta xumea da gurean, etxebizitzaren arazoa, berriz, aspaldi ezagutu genuen gure auzo eta herrietan. Etxebizitza eta bizitzaren aldeko borroka bezala.

Kapitalak aspaldi deklaratu zigun gerra, gure lan espaziotik haratago gure auzo, etxe eta bizitzak osotasunean zeharkatuz. Eta honen aurrean asko izan zarete urte luzez territorio eta espazio ezberinetatik borrokan eta konpromezu handiz honen kontra aritu zaretenok.

Etxebizitzaren aldeko borroka gure auzoetan beraz ez da AZETekin hasi ez bukatzen. Horregaitik eskerrak eta miresmen osoa adierazi nahi dizuegu gaurkoan auzotik, Bilbotik eta Euskal Herritik, duela urtebete jaio zen Etxebizitza Sindikatu txiki honen itsasargia izan zareten guztioi eta urte luze eta sutsu honetan gure ondoan bidea egin duzuenoi.

Eta zer esan nahi du honek? Etxebizitzarena KLASE ARAZO bat dela, zapalkuntza patriarkal eta kolonialarekin batera erasotzen gaituena. Horregaitik ezin izango dugu etxebizitzaren arazoa ulertu, dominazio kapitalistari osotasunean erreparatzen ez badiogu, deominazio honen oinarri bera zalantzan jarritz: JABETZA PRIBATUA.

Horregaitik behin eta berriz errepikatuko dugu, ez dira soilik etxegabetzeak, hau pobreen kontrako gerra bat da eta honen aurrean gure auzokideekin elkartu eta gure klasearekin antolatzea dagokigu.

Gaur egun bizi dugun krisi ekonomikoak hasi besterik ez du egin. Hala da, garai zailak datoz desjabetuontzat. Etxegabetzeak, kaleratzeak, gosea eta miseria da aurretik begiztatzen dena. Honen aurrean klase jabetuna krisia aprobetxatzeko eta gure bizitzetatik etekina ateratzen jarraitzeko antolatzen ari da.

Etxebizitza funtsezko elementua da eta izango da krisi honetan, baina ez bakarra. Eta honen

ondorioa argia da: etxebizitza kapitalisten pilaketa eremu izaten jarraitzen duen bitartean, milaka familia etxerik gabe geratuko dira.

Hala da, garai zailak datoz desjabetuontzat, baina gure historiak erakutsi digun moduan krisiak antagonismorako aukera ere izan daitezke, klase berrosaketarako abagunea, inflexio puntu erabakigarriak. Eta honen aurrean dagokiguna krisiak hartuko duen norabide politikoa zehaztea da. Zer izango da datozen urteetan nagusituko dena? Individualismo hutsa edo klase elkartasuna? Pobreon arteko gerra edo klase borroka? Berregituraketa kapitalista edo iraultza?

Dena kendu nahi digute; etxea, bizitza, komunitatea, behar material oinarritzkoenak... Baina bidegurutzea hau indar bihurtu daiteke. Gero eta gutxiago dugu galtzeko eta horrek irabazteko DENA dugula esan nahi du. Horregaitik gaur eta beti gure auzoKIDEEen etxeak eta bizitzak defendatuko ditugu.

Mila esker urte honetan zehar gure ondoan bidea egin duzuen guztioi; kide eta lagunei, auzokideei, auzo eta herrietatik gure herria iraultzeko lan egiten duzuen eragile guztiei, baira Euskal Herriko txoko ezberdinetan loratu diren Etxebizitza sindikatuei.

Urte luzez ondoan nahi eta beharko zaituztegu. Klase elkartasunak eutsiko gaitu!

<https://www.ecuadoretxea.org/el-sindicato-azet-celebra-su-primer-aniversario-siendo-un-referente-en-la-defensa-de-la-vivienda/>

<https://eh.lahaine.org/el-sindicato-azet-celebra-su>